

Geroko geroa

Bitxia da geroa. Tebistako saio batean adituak entzun ditut esanez hilezkortasunerantz goazela. Hori dela gure geroa, gehienok ez hilezkortasuni, ez batez besteko adinaren bikoizterik ikusiko ez dugun arren. Saio horretan ez, beste askotan adituek esan ohi dutenaz oroitutako naiz jarrian, kontraesana agerian: planeta honek ez duela futuro handirik, suntsitzen, hondatzen, akabatzen ari garela: animalien espezie anitz desagertzen ari direla, izotz mendiak urtzen, superbi-rusak sortzen, ur eta lur-rrak kutsatzen, haizea ere ahaztu gabe. Bada beste planeta batera aldatu beharko genukeela, bilatzen hasi beharko genukeela, diotenik ere.



JIRA
Angel Erro

Lurraren gainean dauden mehatxuen zerrenda gehitu behar diogu, kontraesanik ikusi gabe, gizakion zahartzte prozesuaren balizko moteltzea. Gauzatu baino lehenago, inoiz gauzatuko balitz, negozio errentagarri bilakatuko dena, klaseetan mailakatzeari nabardura bat gehituta. Denen eskura egonen da? Giza eskubidea izendatuko da? Zenbat ordaindu beharko dugu ez hiltzeagatik? Hilero erosi beharreko pilulek sasoko mantenduko gaituzte? Berrehun edo bostehun urteko hipotekekin edozer gauza erosi ahal izanen dugu. Beste planeta bizigarri baterako txartela ere bai, gogor lan egingez gero.

Biharamuna

Luzaketak egiteko eguna da gaur, autobusean eta trenean horrenbeste ordu eman ondoren giharrak biguntzekoa. Gorputz kolektibo baten parte izan ondoren, pixkana-pixkana nor bere soinera itzultzen joateko eguna. Eta, zergatik ez, bien bitartean nekeaz gozatzeko. Motxilak desagetekeko eguna da gaur, atzo sobratutako urdaiazpikoarekin hamaiketako egiteko eguna. Banderolak ostera ere leihotik behera eskegitzekoa. Eta txamarraren paparretik pegatinak kentzekoa: *Orain presoak*.



BIRA
Miren Amuriza

Orain *orain* da, *orein*-en antzekoa. Iheskorra. Basoan orein batekin topo egin eta hura, berriz desagertu orduko, segundo batzuez begira-begira geratzen zaizuneko. Orain *orain* da, eta beste guztiak *berandu*. *Orain*-ek ez dauka sinonimorik; ordea, *presoa*-k bai, badauzka. *Torturatua*, esate baterako, hain kuarteletan inkomunikatuta eduki ondoren kondenatutakoa. Edo *gaixoa*, kartzelaldiak eraginiko osasun arazo larriak, atzera bueltarik bakoak, dauzkana. *Umea*, lantzean larunbat goiz bat lokutorio batean pasatzea normalizat duen umea ere *presoa*-ren sinonimoa da. Baita aitita, ama, izeko, koinatua, lehengusina eta aitagarreba ere. Edo *laguna*, bisita bat daukan bakoitzean kotxean, autobusean, trenean, hegazkinean amasa estu-estu eginda joaten den laguna. Luzaketak egiteko eguna da gaur, atzoko gorputzaldia erusteko: orain presoak, eta senideak, eta lagunak.

Jon Mirena Landa
Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra zuzendaria EHUn

Izenburua ikusi bezain pronto batek baino gehiagok ezusteko galanta hartuko zuen; beste batzuek agian harridura; kasurik onenean, apika, jakin-mina.

Bigarren Mundu Gerran zehar naziek aurrera eramandako holokaustoa Europako historia sakonki markatu zuen. Holokaustoa biktimak, juduak behinik behin, ordea, ez ziren berehala esparru publikoan agerikoak izan. Ezta gutxiago ere. Herrialde bakoitzak (Frantziak, Alemaniak, Britainia Handiak...) haien memoria propioa, zatikakoa eta alde batekoak egiteari ekin zion. Gudan gertatutakoak gogoratzea ez zen xamurra, are gutxiago norberak hartan egindako delitu larrien egia eta erantzukizuna onartzea. Horregatik, memoria askotan abertzalea izaten zen, batez ere aliatuen aldetik, haiek guda irabazi zuten gero, irabazitakoa goraiapatu behar zen neurrian. Adibide gisa, erresistentziari dagokionez, hura Frantziaren idealizatu eta azpimarratu egiten zen, alemanen aurkako sakrifizioak eta balentria muturreraino eramanez, Vichy erregimenaren kolaborazioak egon izan ez balitz bezala. Milaka judu-arrak Auschwitzen bukatu zuten Frantziako elkarlanari esker: baina hori ez omen zen existitzen.

Alemanian memoria zatikakoa eta osatugabea egiteko arrazoiak desberdinak ziren. Alemanak gudaren erantzuleak ziren, baina egin zutena ez zen lortu modu garbian esparru publikoan finkatzea. Ugari dira hori azaltzeko pilatu ahal diren argudiobideak. Besteak beste, nazi guztiak alboratuak izan balira, Alemania ezingo zitekeen errautsetatik berriro altxatu. Alemania berreraikitze koadro teknikoaren artean nazi izandakoak ere behar-beharrezkoak ziren aurrera egitekotan. Eta horrek pisu handia izan zuen, Mendebaldearen eta Sobietar Batasunaren arteko lehia areagotzen hasia zen unean, Alemania komunismorantz hurbiltzeko «arriakua» indargabetzekotan. Horregatik nagusitu zen guda Hitlerren erantzukizuna izan zela, berarena eta hurbilen zituen zirkuluna, gainerakoak -gudaroste profesionala (Wehrmach), Estatuaren bestelako egiturak eta, are, gizartearen ezinbes-

teko elkarlana bera ere- *erakarriak* suertatu zirelarik, haien errua disolbatu nahian-edo.

Juduak, sei milioi baino gehiago, erailak izandakoak ziren, ordea; eta ez edozein modutan. Holokaustoa, modu sistematiko eta industrialean egindakoa, antolatutako tortura modu ikaragarrien bitartez, hain zuzen, pertsonen *etekin* guztia atera ondorengo, hor zegoen, bezaz, ate-joka, aitorrua izateko esperoan. Hamarkadak pasatu behar izan ziren holokaustoa bere tamainan eta bere sakontasun ilunean ezagutu, aitortu, eta Europako historian txertatua izan arte. 1990eko hamarkadara arte ez dago esaterik, holokaustoa, eta horren ondorioz horren biktimik, esparru publiko demokratikoan merezitako lekua irabaztea zutenik. Une horretatik aurrera, ahaztuta zeudenak leku guztietan aitortuak izan ziren. Tony Judt historialari handiak dioen moduan, gaur egun ez dago Europako erkidegoan sartzetik alde aurretik holokaustoa aitortzen ez bada, nolabait genozidioaren aurkako txertoa balitz bezala.

Holokaustoa, azkenik, Europako molde juridikoa (horra hor genozidioaren ukatze-delituak, alderdi nazien debekua, demokrazia militantearen ereduak) bai eta biktimen politika publikoak ondu ditu. Biktima horien bitartez Europako identitatean genozidio eta antzeko nazioarteko krimenen aurkako jarrera irmoa txertatu da, nazio edota lurralde-identitateak ere hortan oinarri duela. Holokaustoa, halaber, memoria zatikako -eta gezurterto- ugari gainditu ditu, batzuen eta beste erantzukizunak ageriko bilakatuz: egia argitara behartuz. Eta hori guztia demokraziaren alde, izan ere egia barik, ez dago demokrazia sendo eraikitzerik.

Eta Espainian? Espainian gainerako Mendebaldeko European demokrazia

ETAren jardun kriminala puzteak, holokaustoa eta antzekoekin parekatzeraino, ez al du trabaturik memoria-politika demokratiko osoa eta jatorra? Ez al du helburu Espainian memoria-zatikakoa mantentzea?

sortzeari ekiten hasiak ziren bitartean, guda zibila eta geroko frankismo ankerak, zapalketak eta giza eskubideen urraketa sistematikoak jarraitu zuen. 1978ko Konstituzioarekin bide berria hasterakoan hautatu zen eredu amnistia eta ahanzturarena izan zen. Hortaz, biktimak guztiz desagertuta izan ziren behintzat 1999ra arte, urte horretan terrorismoaren biktimen lehenengo legea onartu zelarik. Ikusten denez biktimik, denek, ETArek ere, ez zuten esparru publikoan presentziarik eduki, harik eta ETArek biktima leku hori betetzen hasi ziren arte.

ETAren biktimak laguntzeko politika publikoak martxan jartzea, berandu bazen ere, ez da berez kritikatzeko: kontrakoa. Behar zuten laguntza hori, bai horixe. Arazoa ez da hori. Arazoa bada, iraganari buruz egin ez den eztabaidaren erdigunean ETA jarri zela, bestelako giza eskubideen urraketak ukatzen ziren bitartean edota, beste erremediorik ez dagoenean, beste biktimak bigarren mailan eta erdi-purdika aitortzen diren bitartean. Eta horrek kubritzen du 1978ko Konstituzioa eta geroko zein aurreko denbora-esparrua, ETArek biktimen legearen filosofia, diskurtsoa eta ikusmira atzera-eraginez behintzat 1960. urtera eramana da eta.

Gogorra da esatea, baina, Espainian ETArek holokaustoa eratu lekua hartu du, giza eskubideen urraketa paradigma balitz bezala. Eta horri ezarri zaio Europako holokaustoa errentzat aurrekizuta zeuden molde juridiko (alderdi debekua, apologia delituak...) eta politika publiko apartekoak. ETArek bitartez dena estali nahi izan da. Eta horregatik ez da harritzekoa batzuek are sinistu dutela ETArek egindakoa holokaustoa bestekoa dela, gizateriaren aurkako krimena izateraino.

Ez. ETArek utzitakoa ez da holokaustoa. Ezta gizateriaren aurkako krimena ere. Bada terrorismoa, gutxi ez dena. ETArek egindakoaren izen juridiko-penalala aldatu nahi izatea ez da giza-legezkoa. Hori esatea politikoki zuzena ez bada ere.

Azkeneko hausnarketa: ETArek jardun kriminala puzteak, holokaustoa eta antzekoekin parekatzeraino, ez al du trabaturik memoria-politika demokratiko osoa eta jatorra? Ez al du helburu Espainian memoria-zatikakoa mantentzea? Benetako holokaustoa espainiar (Preston), guda-krimen, estatu-terrorismoaren gaineko lehen mailako memoria kritikoa noizko? Europak ibilitako memoria-politika bidetik al egotea ez al da, neurri handi batean, ETArek korapiloan harrapatutik jarraitzearen ondorioa? Noiz arte?